

# Hitzatzea

Apur dezagun mitoa... eta kitto!

XABIER DIAZ ESARTE

(Hemen baino lehen, artikulu hau CALCO Iruñako informazio buletinaren 3. alean argitaratu zen.)



Patxi Huarte

**G**enero bazterketa badago: gizonezkoen eta emakumezkoen arteko gatazka soziologikoan emea galtzaile atera da historikoki, antza, genero kontu guztietan bazterketa da eta bidegabekeria horrek literatura ere kutsatu du.

Literatur arloan bereizten diren hiru multzo horietan (narrati-ba, poesia eta genero dramatikoak, hain zuzen ere, sailkapen klasikoari kasu eginda), galtzaile bat ere dugu: antzerkia, noski. Are gehiago, bazterketa hau askoz ere nabarmenagoa da Haur Literaturan. Esparru honetan antzerkia ez da, puntu.

## Hitza

Jakin, badakigu generoak hiru gramatika-balio izan ditzakeela hainbat hizkuntzatan, gaztele-ra kasu, eta hiru balio horiek –maskulinoa, femeninoa eta neutroa– badute parerik, aldeak alde, literatur generoekin. Maskulinoa narratiba liteke; poesia genero –gutziz gutxiagotua– femeninoa izango zen eta antzerkia genero neutroa. Hau da, ez bero ez hotz, indiferentea, inolako pasiorik sortzen ez duena.

Arestian idatzitakoa Mendebaldeko literatura gehienetan gertatzen bada, pentsa zer nolako giroa dagoen euskal letren munduan. Euskaraz ez du genero gramatikalik (nahiz eta bereizketa hori hitz ezberdinez egin) eta hutsune horrek ez dio antzerki generoari inolako mesederik egiten ez baitu neutroa izateko posibilitaterik ere ematen. Laburbildua: gazte jendeari bereziki zuzendutako literatur lanetan antzerkia ez da. Poesiaren pobrezia, urritasuna, aipatu egin da sarritan, baina haur antzerkiaren gainean ez da inolako aipamenik egiten. Zergatik? Generoa birtuala omen delako.

Ene aburuz, antzerki generoak kontraesan ikaragarri nabarmena pairatzen du. Alde batetik, neska-mutilek oso gustukoa dute antzezlanak ikustea, normalean talde profesionalen eskutik edota ikastetxeko lagunek egindakoak, baina, beste aldetik, antzerki gidoia ez dute irakurgaitzat. «Antzerki bat irakurri? Ezta pentsatu ere», diote.

Antzerkiaren desbalorapen fenomeno bitxi honetaz pare bat ideia daukat argi eta garbi dagoeneko: lehenik eta behin, argitaletxeen liburu politika eta, bigarre-na, irakasleon jarrera bera.

Argitaletxeak, oro har, oso motelak izan dira ildo honetatik abiatzeko. Antzerki kasuan ausardia falta galanta erakutsi dute. Azken finean, liburu azoka ikuspuntu komertzial batetik aztertzen dutenez, haien ustetan errentagarria ez denak ez du etorkizunik. Marketing hutsa. Argitaletxeak idazle eta irakurleen arteko bitartekoak dira, kultur eragileak, eta irizpide zabala erabili beharko lukete erronka berriari aurre egiteko, adibidez, hain bazterturik dagoen antzerki generoari. Argitaletxeek orientabide eta bultzatzaile papera ere bete behar lituzkete eta inizatiba beren gain hartu.

Irakasleoi dagokigunez, antzerki material falta horri geure fantasma gehitzen diogu. Identifikapen gutziz desegokia egin ohi dugu: Antzerkia eta espektakulua bat eta bera dira. Antzerkia muntaia da, emanaldia. Beraz, antzerkiak ezohiko lana eta buruhaustea dakarkigu: gelako giroa asaldatu, ikasle taldea hankaz gora jarri, dekoratuak, jantziak, musika, lana, lana, lana. Ai ene! *Vade retro* antzerkia!

Nire proposamena oso bestelakoa da: antzerki gidoiak oso testu irakurgarriak dira. Zeharo aproposak irakurketa dramatizatua, taldeka eta irakasleon gidaritzapean egitekoak. Pertsonaiekiko identifikazioa, rolen banaketa, entonazioa, hizkuntzaren tratamendua (esaldi laburrak, elkarrizketak, esamoldeak...) gutziz aproposak dira ikasleen interesa erakartzeko.

Egiozu irakurketa dramatizatuari antzerkiaren mitoa apurtzeko. Mito, Mito irakurri... eta kitto!



Patxi Huarte